



## SCALEXTRIC SARI NAGUSIA

### 1. PARTE-HARTZEARI BURUZ

- 1.1. Mangamore 2025ko Scalextric Sari Nagusia, Borja Arbosa Izquierdo eta Euskonet elkarteak antolatua eta Scalextric-ek babestua, urriaren 11n, larunbata, ospatuko da zuzenean, 16:00etatik aurrera, Zelaieta Zentroko 1. solairuan.

Horretarako, 11:00etatik 14:00etara, 10 minutuko entrenamendu libreko txandak egongo dira, eta txapelketa denbora onenak erregistratu dituzten pertsona apuntatuekin egingo da (gehienez 24 parte-hartzaile).

- 1.2. Parte hartu nahi duten pertsonekin, txapelketarako sailkatzen ez dituztenekin, erreserbako zerrenda bat sortuko da. Pertsona horiek bertan egon beharko dute txapelketaren hasieran.

Horrela, Sari Nagusia hasi aurretik, parte-hartzaileak egiaztatuko dira, eta, inor ez badago, erreserbako zerrendako hurrengo pertsonak ordezkatu du. **Puntualtasuna eskatzen da.**

- 1.3. Parte hartzeko gutxieneko adina 14 urtekoa da.

- 1.4. Parte-hartzaile guztiek uneoro bete beharko dituzte antolatzaileen jarraibideak eta arauak.

### 2. TXAPELKETARI BURUZ

- 2.1. Antolatzaileek emandako materialarekin egingo da txapelketa.

- 2.2. Sari Nagusia sailkapen-txandekin hasiko da. Horretarako, goizeko entrenamendu libreko saioan sailkatutako 24 pertsonak 4 pertsonako talde txikietan banatuko dira.

Ondoren, talde bakoitzeko jokalaria azkarrenek lasterketa bat egingo dute esprintean.

Azkenik, esprintean lasterketa irabazten dutenek amaierako lasterketara sailkatuko dira.

### 3. IZEN-EMATEARI BURUZ

- 3.1. Izen-ematea aurrez aurre egingo da urriaren 11n, 11:00etatik 14:00etara, aldez aurretik azaldutako baldintzetan.

### 3.2. Izena emateko, datu pertsonal hauek eman behar dira:

- Izena, abizenak
- Jaiotze-data
- Nick (aukerakoa)
- E-posta
- Telefonoa (txapelketaren antolaketa dela eta harremanetan jartzeko)

Adin txikikoen kasuan, guraso edo legezko tutorearen telefonoa eman ahal izango da.

### 3.3. Izen-ematea baieztatzeko, antolatzaileek mezu elektronikoa bat bidaliko dute [ekintzak@mangamore.net](mailto:ekintzak@mangamore.net) helbide elektronikotik formularioan erabili den helbide elektronikora.

Izen-ematea ekitaldia egiten den bitartean egiten bada, antolatzaileek ez dute mezu elektronikorik bidaliko, baina Zelaieta Zentroko Informazio Gunean izen-ematearen egoera egiaztatu ahal izango da.

**Plazak bete ondoren, antolatzaileek ohar bat jarriko dute izena emateko formularioan, izena erreserba-zerrendarako emango dela adieraziz.** Hala ere, txapelketara joatea gomendatzen da, plazarik libre balego ere.

## 4. SARIO BURUZ

### 4.1. Sariak hurrengoak izango dira:

1. saria: domina + diploma + opariak
2. saria: domina + diploma + opariak
3. saria: domina + diploma + opariak

Opariei dagokienez, merchandising-a, elikagaiak, mangak, liburuak, Artist Alley-ko artisten sormen-lanak eta abar izan daitezke.

### 4.2. Sariak txapelketa amaitzean banatuko dira.

## 5. ANTOLAKUNTZARI BURUZ

### 5.1. Oinarri hauetan araututa egon ez arren, txapelketaren arrakastarik handiena lortzen laguntzen duen edozein ekimen hartzeko eskubidea izango dute antolatzaileek.

### 5.2. Antolatzaileek errespetuzkoa eta dibertigarria den partaidetza-testuingurua sustatu nahi du.

### 5.3. Txapelketan izena emateko emandako datu pertsonalak konfidentziasunez erabiliko dira, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 03/2018 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera. **Datuak txapelketa hau egiteko baino ez dira erabiliko, eta ez zaizkie hirugarrenei salduko edo lagako.** Pribatutasun-politikari buruzko informazio gehiago 1. eranskinean dago

- 5.4. Publizitaterako, txapelketako parte-hartzaileen irudiak (argazkiak, bideoak, etab.) hainbat komunikabidetan erabili ahal izango dira: telebista-programetan, Interneten, egunkarietan, aldizkarietan, etab. Irudi horiek ez dira inola ere helburu komertzialetarako erabiliko. Ez da ordainsari ekonomikorik egongo sustapen-neurri horiengatik.
- 5.5. Txapelketan parte hartzeak oinarriak erabat onartzea dakar. Arau bat edo batzuk ez betetzeak lehiaketatik kanporatzea ekar dezake

## HARREMANETARAKO BIDEA:

Zalantzak, iradokizunak eta abar izanez gero, mezu elektronikoko bat bidal dezakezu [borjarbosa@gmail.com](mailto:borjarbosa@gmail.com) helbidera



## 1. ERANSKINA

### PRIBATUTASUN-POLITIKA

<b>Tratamenduaren arduraduna</b>	AMOREBIETA-ETXANOKO UDALA AYUNTAMIENTO DE AMOREBIETA-ETXANO IFK/CIF: P4800300H Herriko Plaza, z/g 48340 Amorebieta-Etxano (Bizkaia) Telefonoa: 946 300 650
<b>DBO Harremanetarako</b>	<a href="mailto:dbo-dpd@amorebieta.eus">dbo-dpd@amorebieta.eus</a>
<b>Helburua</b>	Udal liburutegiaren kudeaketa Haur eta gazte zerbitzuaren kudeaketa Zine eta ikuskizunen zerbitzuaren kudeaketa Musika Eskola zerbitzuaren kudeaketa Kultura eta kirol programen zerbitzuaren kudeaketa
<b>Tratamenduaren legitimazioa</b>	DBEO: 6.1.c) Tratamenduaren arduradunari aplikatzekoa den lege-betebeharra betetzeko beharrezkoa den tratamendua. DBEO: 6.1.e) Interes publikoko jardueran edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoetan jardutean burututako egitekoa betetzeko beharrezkoa den tratamendua. DBEO: 6.1.a) Interesdunaren baiezkotza (argazkiak sare sozialetan edo udalaren webgunean argitaratzeko). Kasu bakoitzean eskatzen den informazioa ahalik eta txikiena eta Udalak kudeaketa edo izapidea gauzatzeko behar-beharrezkoa duena baino ez da izango.
<b>Pertsona/Entitate hartzaileak /Nazioarteko transferentziak</b>	Bai aurreikusten dira norberaren datuen transferentziak. Bai aurreikusten dira datuen nazioarteko transferentziak AEBra, argazkiak sare sozialetan argitaratuz gero.
<b>Eskubideen erabilera</b>	Bidezkoa gertatzen denean, datuak atzitu, zuzendu, ezabatu, aurka joan, edota eramagarri izateko eskatu ahalko da, bai eta tratamendua mugatzeko, eta soilik automatizatuak diren erabakien xede ez izateko ere, pribatutasun-politikan ezarrita dagoen prozeduraren bidez gure webgunean informazio gehigarria zuzenduta ( <a href="https://amorebieta-etxano.eus">ZERBITZuenKATalogo (amorebieta-etxano.eus)</a> ).
<b>Informazio gehigarria</b>	Udal honek egiten dituen datu pertsonalen tratamenduen gaineko informazio gehigarria eskuratu ahal duzu beraren webgunean kokatuta dagoen Datuen babesaren atalean: <a href="https://amorebieta-etxano.eus/es/politica-de-privacidad/">https://amorebieta-etxano.eus/es/politica-de-privacidad/</a>